

EROSKETA ZEHAZTAPENAK ETA BALDINTZAK

1. INFORMAZIO OROKORRA

Zehaztapen eta Baldintza hauek aparkalekuen kudeaketa eta esplotazio zerbitzua erregulatzen dute. Horren bidez, **1. eranskinean** identifikatuta dauden SABA Taldeko enpresek (aurrerantzean "**SABA**") SABA-k Bezeroari emandako zerbitzuen kontratazioa (aurrerantzean "**Zerbitzuak**") Partikularren, Saltokien eta Enpresen esku (aurrerantzean "**Bezeroak**" edo "**Bezeroa**") jartzen dute haren webgunearen bidez. Zerbitzu horiek webgunean bertan deskribatuta datoz.

1. eranskinean Bezeroak kontratua hitzartzen duen konpainia identifikatuta etorriko da aparkalekuaren kokalekuaren arabera.

Zerbitzuen erosketak Zehaztapen eta Baldintza hauek onartzea inplikatzeko du, baita Bezeroa arautuko duten baldintzak ere, eta batez ere [Lege-oharra](#) Pribatutasun [Politika eta Cookien Politika](#).

Bezeroak SABA-rekin kontaktuan jarri nahi badu erosketarekin lotutako edozein zalantza edo gertaera dela eta, 1. eranskinean agertzen den posta helbidea, 902288030 telefono zenbakia, edo, nahiago izanez gero, atclientesaba@saba.eu posta elektronikoa erabil dezake.

Zehaztapen eta Baldintza hauek aplikagarriak dira Interneten argitaratzen diren unetik aurrera eta ezingo zaizkie aurretik iraungitako kontratuei aplikatu. Webguneako kontratazio guztiak kontratatutako Zerbitzuaren erosketak eta ordainketak unean aplikagarriak diren Zehaztapen eta Baldintzak arautzen dituzte. Horretarako, komenigarria da Bezeroek Zehaztapen eta Baldintza guztiak irakur ditzatela Zerbitzuetako bat erabili edo/eta kontratatu aurretik. Zehaztapen horiek gazteleraz, katalanez, galizieraz edo euskaraz erabilgarri egongo dira Webgunean dagokion atalean. Bezeroak horiek ezagutzen eta onartzen dituela frogatzeko "*Erosketa Zehaztapen eta Baldintzak irakurri eta onartzen ditut*" botoia sakatu beharko du, konforme badago. Behin erosi nahi duen Zerbitzua hautatzean, ordainketaren pantailara sartu ahal izateko. Zerbitzuaren kontratazioarako edo/eta erabilerarako izapideak Zehaztapen eta Baldintza hauetan deskribatzen direnak dira, baita nabigazioan zehar pantailan agertzen direnak ere. Beraz, Bezeroak Zerbitzua kontratatzekeko beharrezkoak diren izapide horiek ezagutzen eta onartzen dituela adierazten du.

Zehaztapen eta Baldintza horien onarpenarekin, Bezeroak berariaz adierazten du Lege-oharra ezagutzen duela. Lege-ohar horrek arautzen du zerbitzuaren erabilera eta aplikagarria da klausula honi dagokionez.

Webgune honetan eskaintzen diren zerbitzuak, beste ezaugarri, deskribapen, prezio osoa eta dagokion lege-bermearekin batera, eta, kasuan kasu, Bezeroarentzako lagungarriak izan daitezkeen beste merkataritza-berme batzuekin batera agertuko dira pantailan.

SABA-k Webgunearen bidez Bezeroei eskaintzen zaizkien eta bertan dauden Zerbitzuen gainean erabakitzeko eskubidea du. Beraz, SABA-k edozein momentutan gehitu ahal izango ditu Zerbitzu berriak Webgunean. Zerbitzu berri horiek une horretan indarrean dauden Zehaztapen eta Baldintzek arautuko dituzte, bestelakorik esaten ez bada. Halaber, SABA-k edozein unetan izango du Webgunean eskaintzen den edozein Zerbitzutara sarbidea galarazteko aukera aurretiko abisurik gabe.

2. BALDINTZAK ALDATZEA

SABA-k edozein unetan izango du Erosketa Zehaztapen eta Baldintza hauek alde batean aldatzeko eskubidea. Erosketa Zehaztapen eta Baldintza hauen aldaketa guztiak linean argitaratuko dira. Bezeroak erosketa egiteko unean onartu zuen dokumentu honen bertsioari men egin beharko dio.

3. LINEAKO EROSKETA PROZESUA

Webgunean eskaintzen diren Zerbitzuak erosteko, Bezeroak pantailan agertzen zaizkion argibideak jarraitu beharko ditu eta ordainketa onartu beharko du aipatutako argibide horiek betez.

Bezeroa pertsona fisikoa bada, gutxienez 18 urte eduki beharko ditu Zerbitzuak eskuratzeko.

Kontratazioa egiteko, Bezeroak erosketa-prozesuan zehar agertzen zaizkion formulario desberdinak bete beharko ditu eta Zehaztapen eta Baldintza hauek eta kontratatutako produktuari aplikatuko zaizkion baldintza guztiak onartu beharko ditu berariaz. Erosketa-prozesuan, formularioa bete ondoren bidali egingo da "**Ordaindu eta Erosketa Amaitu**" botoia sakatuz. Hori eginda, erosketa prozesua amaituko da eta Bezeroak SABA-ren merkataritza-proposamena bere osotasunean onartzen duela joko da. Bezeroa erosketaren egiaztapeneko orrialde batera bideratuko da eta orrialde hori inprimatu ahal izango du.

Bezeroa erregistratu egin beharko da aldeztu aurretik Bulego Birtualean.

Bezeroak erosketa egitean erreserba-zenbaki bat jasoko du (aurrerantzean "**Kodea**"). Kodeak kontratatutako zerbitzuaz gozatzeko eskubidea ematen du.

Kodea bere osotasunean bakarrik alda daiteke. Zenbait produktutarako aldaketa hori fisikoki egin beharko da kontratazioak esleitutako aparkalekuan. Egoera hori kontratazio-prozesuan jakinaraziko zaio Bezeroari.

Kontratutako zerbitzuak orduen erosketa edo kontsumorako saldoa badira (Adibidez, Tempo, Vale Hora edo Vale Euros) lekua egotea aparkalekuaren okupazio mailaren arabera izango da. Bezeroak multi-eguna produktua erosten badu tokia erreserbatzeko aukera izango du.

Abonuen kasuan, SABA-k jakinaraziko dio Bezeroari posta elektronikoki bidez kontratatutako Zerbitzua hitzartutako baldintzetan eman ezin bazaio. Kasu horretan, SABA-k Bezeroaren esku jarriko ditu aukera hauek: (i) antzerako prestazioak dituen beste Zerbitzu bat (eskuragarri balego) edo (ii) hasieran kontratatutako Zerbitzuaren erosketa-prezioa itzultzea.

4. PREZIOA ETA ORDAINKETA MODUA

Webgunean agertzen diren Zerbitzuen prezioak eurotan agertuko dira eta esleitzen zaizkien zergak edo aplikagarriak zaizkien bestelako kostuak barne izango ditu. Etxera bidali beharreko Zerbitzuen kasuan, garraioaren eta bidalketaren gastuak produktuaren entregeari aplikatuko zaizkie eta dagokion unean azalduko dira.

Bezeroak kontratatutako Zerbitzuaren ordainketa kreditu- edo zor-txartelaren bidez gauzatuko da PayPal sistemaren bidez (PayPal kontua edo ordainketa txartelarekin) edo SABA-k etorkizunean Erabiltzailearen eskura jartzen duen beste edozein plataforma erabilita. Zentzu honetan, Bezeroak ematen zaion formularioko datuak bete beharko ditu kasu bakoitzean hautatu den metodoaren arabera.

Ordaintzeko, Bezeroak pantailan agertzen diren argibide guztiak jarraitu beharko ditu, eskatzen zaion informazioa emanez. Bezeroak hitzematzen du ez duela datu faltsurik emango (izenak, helbideak edo/eta kontakturako edo ordainketarako xehetasunak barne), ez duela erosketarekin lotutako jarduera ilegalik egingo eta ez diola inori horretarako baimenik emango.

Ordainketa egiteko, Bezeroa ordainketa egiteaz arduratuko den webgunera bideratuko da, eta zor- edo kreditu-txartelarekin ordaindu ahal izango du modu seguruan.

Erabilitako ordainketa-plataformaren arabera, ordainketa egiteko, Bezeroak ordainketa-plataforma horren baldintzak onartu beharko ditu aurretik. Plataforma hori da kontratatutako Zerbitzuaren ordainketa- eta kobratze-prozesuaren kudeaketaz arduratzen dena, SABA-ren ordainketaren hornitzaile gisa.

SABA-k adierazten du ez duela Bezeroak erabilitako ordainbideari buruzko datu konprometituetara sarbiderik, eta ez dituela haiek biltegitzen ere. Ordainketa gauzatzeaz arduratzen den erakundeak du soilik datu horietara sartzeko eskubidea ordainketak eta kobratzeak kudeatzeko.

Xede horretarako ematen diren datu guztiak enkriptatu egiten dira segurtasuna bermatzeko.

5. KODEAREN ERABILERA BALDINTZAK

Kode baten erosketara erabilera pertsonalerako da, Bezeroarentzat edo izendatzen duen beste edozeinentzat. Berariaz debekatuta dago:

- i) Kodea irabazi-asmoetarako saltzea edo erabiltzea.
- ii) Kodea kopiatzea.

Behin Kodea igortzean, Bezeroa izango da haren zaindari bakarra. SABA-k ez du erantzukizunik izango Kodea galtzen edo lapurtzen bada. Kodea zure erantzukizuna da.

Kodea Zehaztapen eta Baldintza hauetan aurreikusten den xedeetarako ez erabiltzeak honako ondorioak ekar ditzake: (i) Kodea ezgaitzea, (ii) SABA Bezeroaren aurrean izan dezakeen edozein erantzukizunetatik salbuetsiko du, baita hirugarren baten aurrean ere eta SABA-k zuzenbidearen arabera dagozkion ekintzak egiteko eskubidea izango du.

6. ATZERA EGITEKO ESKUBIDEA ETA DIRUA ITZULTZEA

SABA-k jakinarazten du klausula honetan zehazten diren baldintzen harira, Zerbitzu hauetan atzera egiteko eskubidea izango duzula justifikatzeko beharrik gabe:

- i) *Abonuak eta multi-egunak*, 14 egun naturaletako epean, Zerbitzua linean kontratatzen den unetik, Bezeroak abonua edo multi-eguna erabiltzen ez badu. Kasu horretan eskubide hori bertan behera geldituko da eta abonu-kontratuaren zehaztapen eta baldintzek arautuko dute.

Ezingo zaio multi-eguna zerbitzuari uko egin, multi-eguna kontratatu zeneko lehen egunetik aurrera, produktu hau unitate gisa merkaturatzen delako eta SABA-k hobariak aplikatzen dituelako prezioaren gainean unitate-kontratazio hau kontuan hartuta.

- ii) *Tempo horas, vales horarios, vales euros, eta Saldo Via T*: 14 egun naturaleko epean Zerbitzua linean kontratatzen den unetik Bezeroak aurretik erabiltzen ez badu. Kasu horretan uko egiteko eskubidea dagokion aparkalekuaren lehen egun/ordu/euroaren erabilerarekin indargabetuko da, zerbitzua unitate-paketearekin merkaturatzen delako, eta SABA-k hobariak aplikatzen dituelako prezioaren gainean, unitate-kontratazio hau kontuan hartuta.

Aparkalekuan nahitaez trukatu behar diren produktuen kasuan bezeroak zerbitzua erabiltzeko baimena ematen dioten tiketak hartu baditu, uko egiteko eskubide hori fisikoki gauzatu beharko da, trukea egin zen aparkaleku berean. Ondoren, produktua itzuliko da bere osotasunean.

- iii) *Promozio-kanpainak* eskaintzan, promozioan, publizitatean edo kontratuan zehazten diren zehaztapenetara lotuta daude.

Uko egiteko epea Zerbitzuak kontratatu eta 14 egun naturalera iraungiko da.

Uko egiteko eskubidea gauzatzeko, Bezeroak atclientesaba@saba.eu helbide elektronikoa jakinarazi beharko du, haren gaian "*Baja (Kontratututako Zerbitzuaren izena*" adieraziz eta adierazpen horren bidez kontratua bertan behera utzi nahi duela esanez. Xede horretarako, Bezeroak 2. eranskinean dagoen uko egiteko formularioa erabil dezake, hala ere hura erabiltzea ez da derrigorrezkoa.

Bezeroak uko egiten badio, SABA-k uko egitearen hartu izana posta elektronikoz jakinaraziko du eta Bezeroarengandik jasotako ordainketa guztiak itzuliko ditu, bidegabeko atzerapenik gabe, eta, edozein kasutan, Bezeroak SABA-ri kontratatutako Zerbitzu horri uko egiteko erabakia jakinarazten dionetik 14 egun naturalen buruan gehienez. SABA-k Bezeroak hasierako transakzioan erabilitako ordainbide berdina erabiliz itzuliko du diru hori, eta edozein kasutan ez du inolako gasturik izango itzultze hori dela eta.

Itzultzea egintzat hartuko da Bezeroak ez badu ukatzen hamalau (14) egun naturaleko epean, jaso zuen egunetik zenbatzen hasita. Uko egitearen eskubideak SABA-k Bezeroarekin dituen obligazioak desagerraraziko ditu uko egin zaion Zerbitzuari dagokionez.

Baldintza hauek aplikagarriak izango dira soilik Bezeroa baldin bada kontsumitzailea eta erabiltzailea Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren testu bateratua onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Errege Dekretu Legegilean zehazten denari jarraiki.

7. ERANTZUKIZUNA

SABA ez da atzerapenen edo haren obligazioak ez betetzearen erantzule izango, atzerapen edo ez betetze hori gure arrazoizko kontroletik kanpo badago.

Zehaztapen eta Baldintza hauetan berariaz kontrakoa adierazten ez den bitartean, SABA-ren erantzukizuna Zerbitzuaren erosketa-preziora mugatuta egongo da zorrozki.

Klausula honetan zehazten denak ez du inolako eraginik izango kontsumitzaile edo erabiltzaile gisa dagozkizun lege-eskubideetan, ezta Kontratua ukatzeko eskubidean ere.

8. ISILPEKOTASUNA ETA PRIBATUTASUNA

Zehaztapen eta Baldintza hauen onarpenarekin, dokumentu honen hasieran aurreikusi den bezala, Bezeroak berariaz adierazten du Zerbitzuen erabilera arautzen duten Pribatutasun eta Cookie Politika ezagutzen dituela.

9. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA AMAIERA

Zehaztapen eta Baldintza hauek iraupen zehaztugabea izango dute.

Bulego Birtualeko Bezeroaren kontua eta bertan jasotzen eta biltegitratzen den informazio guztia ezabatu egingo da. Sarbiderako datu horiek ezeztatzean kontuetako sarbide-gako guztiak eta Webgune honek erabiltzen dituen erakunde finantzarioen, ordainketa-erakundeen edo zerbitzu finantzarioen edo ez-finantzarioen zerbitzuen hornitzaileen informazioa ere ezeztatuko da. Ondorioz, ez da posible izango gako horiek dagoeneko ezeztatuta dagoen lehengo Bezeroaren identifikatzailearekin lotzea. Bestalde, SABA-k Zerbitzua ezeztatu ahal izango du lotutako edo/eta bezeroak jakinarazitako helbide elektronikora jakinarazpen bat bidaliz hamabost (15) egun lehenago. Ez da beharrezkoa izango zergatirik adieraztea. SABA-k zerbitzua ezeztatzen badu ez da konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik egongo; hala ere, SABA-k kontratua aldeztatik ezeztatzeagatik Bezeroak gozatu ez dituen eta ordaindu dituen zenbatekoak itzuli ahal izango dizkio.

Aurreabisua ez da beharrezkoa izango Zerbitzua Bezeroak Webgunea edo Bulego Birtualeko kontua zuzen ez erabiltzeagatik, haren prestazioa ematean eragin negatiboa izateagatik edo Bezeroak beste obligazioen bat ez betetzeagatik, zerbitzuaz gozatzeko SABA-ri egin beharreko ordainketak ez egitea barne.

10. ZERBITZUAK EZEZTATZEA

Bezeroak Zerbitzuak ezeztatu ahal izango ditu baldintza hauei jarraiki:

- i) *Abonuak*: abonuen baja aurreko hileko 25a baino lehen egin daiteke.
- ii) *Tempo horas, vales horarios, vales euros, eta Saldo Via T*: dagokion aparkalekuaren lehen egun/ordu/euroaren erabilerarekin kontratua osorik gauzatuko da, Zerbitzuaren ezeztapen partziala egiteko eskubiderik gabe, zerbitzua unitate-paketearekin merkaturatzen delako, eta SABA-k hobariak aplikatzen dituelako prezioaren gainean, unitate-kontratazio hau kontuan hartuta.
- iii) *Promozio-kanpainak* eskaintzan, promozioan, publizitatean edo kontratuan zehazten diren zehaztapenetara lotuta daude.

11. BALIOTASUNA ETA HITZARMEN OSOA

Zehaztapen eta Baldintza hauetan dagoen edozein hitzarmen baliogabe edo ezgai izendatzeak ez dio beste klausuletako eraginkortasunari eta baliotasunari eragingo.

SABA-k Webgunearen bidez emandako Zerbitzuen Zehaztapen eta Baldintza hauek, Lege-oharrak eta Pribatutasun eta Cookieen Politikak alderdien arteko hitzarmen osoa suposatzen dute, eta aurretik hitzartutako edozein idatzizko edo ahozko hitzarmen, ulermen, baieztapen, ordezkapen, negoziazio edo hitzarmen-proposamenek baino pisu handiagoa izango dute.

12. LEGEDI APLIKAGARRIA

SABA eta Bezeroaren arteko harremana Espainiako legediak arautuko du.

Kontrakoa adierazten duen lege-xedapenik egon ezean, SABA eta Bezeroaren arteko harremana indarrean dagoen Espainiako legediak arautuko du eta liskarrik egongo balitz Bartzelonako Epaitegietan (Espainia) epaituko da.

1. ERANSKINA. SABA TALDEKO KONPAINIAK

SOCIEDAD	CIF	DIRECCIÓN POSTAL	CORREO ELECTRÓNICO	APARCAMIENTO
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	BERENGUER I CARNICER (Girona)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	BUCARAMANGA (Madrid)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CAL RONDINA (Vilafranca)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CAN XAMMAR (Mataró)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CARDONA VIVES (Castelló)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CARLES III
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CATEDRAL
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CIM VALLES
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	CLINICA CIMA
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	DR.ROBERT (Sabadell)
Societat d'Aparcaments de Terrassa, S.A.	CIF número A-61597183	Subsòl de la Plaça Vella,s/n, 08221 Terrassa	web@saba.eu	Dr.ROBERT (Terrassa)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	EDIFICIOS MÚLTIPLES (Las Palmas)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	EL FIRAL (Figueres)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	EL GARRIGAL (Figueres)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	GRACIA I
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	GRACIA II
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	GRUA CORNELLA
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	GRUA ST. FELIU DE LLOBREGAT
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	HOSPITAL DE MATARÓ
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	HOSPITAL MACARENA (Sevilla)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	HOSPITAL SANT JOAN DE DEU
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	HOSPITAL SANT PAU
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	JOAN GUELL
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	LA RIERA (Mataró)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	LLUIS COMPANYS
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	MAISONAVE (Alacant)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	MERCAT CENTRAL (Sabadell)
Saba Aparcamientos, S.A.	CIF número A-08197931	Avenida del Parc Logístic, 22-26, 08040 Barcelona	web@saba.eu	METRO NUEVOS MINISTERIOS

2. ERANSKINA UKO EGITEKO FORMULARIOAREN ERANSKINA

(formulario hau kontratua bertan behera utzi nahi bada bakarrik bete beharko duzu)

- Hartzailea

[ENPRESAREN IZENA SABA]

(Helbidea: Avda Parc Logístic, 22-26, 08040 De Barcelona, s

faxa:

Helbide elektronikoa:

- Idazki honen bidez jakinarazten dizut/dizuegu (*) (*) zerbitzuaren erosketa kontratua (*) ukatu nahi dudala/dugula.

- Erreserba-zenbakia (*)

- Eskaera jaso den eguna (*)

- Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen izenak: (*)

- Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen helbideak: (*)

- Kontsumitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzaileen eta erabiltzaileen sinadura: (*)

- Data